

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“A-126 errepidea 39,160 kilometrotik (A-2126 errepidearekiko elkargunea) 40,480 kilometrora (Bernedoko industrialdea) egokitzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, 117/2020 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“A-126 errepidea 39,160 kilometro puntutik (A-2126 errepidearekiko elkargunea) 40,480 kilometro puntura (Bernedoko industrialdea) egokitzeko eraikuntza proiektua jendaurrean egon den bitartean aurkeztutako alegazioei erantzutea. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditua atxikitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 21eko 332/2019 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen A-126 errepidea 39,160 kilometro puntutik (A-2126 errepidearekiko elkargunea) 40,480 kilometro puntura (Bernedoko industrialdea) egokitzeko eraikuntza proiektua, 647.649,18 euroko (BEZa barne) kontratu aurrekontu orokorrarekin, bai eta proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak banan-banan jasotzen zituen hasierako zerrenda zehatza eta hura jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea ere.

Proiektua jendaurrean egon den aldian, idatzizko hiru alegazio tekniko aurkeztu dituzte proposatutako irtenbidearekin eta espedienteko 5/000, 18/000, 19/000 eta 26/000 finkekin lotuta; Errepide Zerbitzuak aipatutako idazki horien gaineko txostenak egin ditu, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak hiru alegazio horiek ezetsi, neurri batean baietsi eta ezetsi ditu, hurrenez hurren, eta Gobernu Kontseilu honek bere egin ditu erabaki horiek. Horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileari igorriko zaizkio, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Behin alegazioei erantzunda, behin betiko onetsi behar da proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda. Zerrenda hori jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioen erantzunak kontuan hartuta egin da, bai eta aintzat hartuta ere eragindako ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrendan agertzen den 20/000 lurzatiaren doako eta nahitaezko lagapena, erabilera eta jabari publikoko eremu librea denez gero.

Horrez gain, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela eta, ondorioz, presazko okupazioa adierazi behar da. Horiek horrela, Errepide Zerbitzuak hau adierazten du:

“Martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arauaren bidez onetsitako Arabako Errepideen 2016-2027rako Plan Integralaren ‘Sarea egokitzea eta hobetzea’ programan eta ‘Egokitzea’ azpiprograman A-126 errepidea egokitzea aurreikusten da, 2019-2021 hirurtekoko lehentasun gisa, Bernedoko herrigunearen amaieraren eta A-3136 errepidearekiko elkargunearen artean.

Tarte hori A-2126 errepidearekiko elkargunean hasten da gutxi gorabehera, eta, egun dagoen galtzadak 5,00 bat metroko zabalera du, ez du bazterbiderik, eta hori ez da nahikoa oinarriko sareko errepide mota horretarako; gainera, kontuan hartu behar da tarte honen amaieran Bernedoko industrialdea dagoela.

Errepidearen zabalera ez da nahikoa bi ibilgailu segurtasunez gurutzatu ahal izateko, eta ondorioz, errepide tarte horrek ez dauzka erabiltzaileak bertatik segurtasunez ibiltzeko baldintzak.

Horrez gain, beharrezkoa da tartearen hasieran dagoen A-126 eta A-2126 errepideen arteko elkargunea berrantolatzea eta hobetzea, biratzeko eremuak hobetzeko eta elkargunean egiten diren mugimenduak bideratzeko, segurtasun handiagoz egin daitezen.

Bai Bernedoko Udalak, bai industrialdean dagoen enpresa nagusiak segurtasun arazo horri irtenbidea emateko eskatu dute. Horiek horrela, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak A-126 errepidearen tarte horretan esku hartzea erabaki du eta, horretarako, aipatutako proiektua onetsi du. Proiektu horrek honako hauek egitea aurreikusten du: oinplanoko eta altxaerako trazatua egokitzea, proiektuaren abiadura 60 km/h izan dadin, eta proiektuaren tarteko zeharkako sekzioa handitzea, plataformak 3,00 metroko zabalera bi errei izan ditzan eta 1,00 metroko zabalera bazterbideak eta 0,50 metroko bermak tarte osoan, salbu eta herrigunean, non espaloiak baitaude. Horren guztiaren xedea da bideak erabiltzaileentzako segurtasun eta erosotasun baldintzetan jaso ahal izatea trafiko kargak eta, bide batez, Bernedoko udalerriko industrialderako sarbidea hobetzea, tarte horrek egun dituen segurtasun arazoak konponduz.

Esku hartzea osatzeko, A-126 eta A-2126 errepideen arteko elkargunea berrantolatu eta hobetuko da, eta hori dela eta, A-2126 errepidearen hasierako tartean esku hartuko da eta trazatua egokituko da, A-126 errepidearekiko bidegurutzeta hobeto zehaztu ahal izateko, biratze eremuak hobetuz eta A-2126 errepidearen plataforma handituz. Horri esker, galtzadak 6,00 metroko zabalera izango du (2x3,00 metro), alboetako bazterbideek 0,50 metro eta bermek 0,50 metro.

Azkenik, errepiderako sarbideak berrantolatuko dira, eta horrek, zalantzarik gabe, bidearen segurtasuna hobetuko du."

Premiazkotzat jotzeko izapiderako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriari buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikuluan xedatutakoari jarraituz, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz ere.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa) 7.a.8. artikuluan eta ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa) 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, Foru Gobernu Kontseilu hau da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haiek okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ere.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. A-126 errepidea 39,160 kilometro puntutik (A-2126 errepidearekiko elkargunea) 40,480 kilometro puntura (Bernedoko industrialdea) egokitzeko eraikuntza proiektua jendarean egon den bitartean aurkeztutako alegazioei erantzutea eta Errepide Zerbitzuak txostenetan adierazi eta proposatutakoaren arabera baietsi edo ezestea.

Bigarrena. Onestea A-126 errepidea 39,160 kilometro puntutik (A-2126 errepidearekiko elkargunea) 40,480 kilometro puntura (Bernedoko industrialdea) egokitzeko eraikuntza proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeina eranskinean jasotzen baita.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Laugarrena. Adieraztea honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta, horregatik, desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. 76.062,29 euro esleitzea eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontuaren "Desjabetzeak" izeneko 50106.5300.6000002 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-547/000.20.1.20).

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean zerrendatutako finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruaren ordainketaren proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak edo aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako aurrekontua betearazteko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauak 16.1.a) artikuluan."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Bernedoko Udaletxetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 27a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azpigiaturen eta  
Ingihurtasunaren Sektoreko  
Departamentuko Infrarastruktura  
Batasun eta Inbentarioaren  
Batasunaren Berezialtasunak

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava

A-128 ERREPERIDEA 339,160 KILOMETROTK (A-2126 ERREPERIDEAREKIKO ELKARGUNE) A-40,480 KILOMETROA (BERNEDO) INDUSTRIALDEA EGOKITZEKO ERAKUNTZA PROIEKTUA  
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-128 ENTRE EL P.K. 339,160 (INTERSECCIÓN CON LA CARRETERA A-2126) Y EL P.K. 40,480 (ZONA INDUSTRIAL DE BERNEDO)

Esp. Espec. 2019/9

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETAMENDUA	ERAGINDAKO OINDASUNA BIEN AFECTADO	BEHIN-BEHINKO BATERAKO		FRASINDAKO SZALEDA <sup>2</sup>	ERAGINDAKO OINDASUNA	EGUNA	ORDUA
		POLIGONIA	LURZATIA				DEFINITIVA	SUPERFICIE ATEKATUA				
4/000	RUFINO ANTONIÑA BUSTEOS	7	156	BERNEDO	BARATZA / HUERTA		76	1			14/9/20	10:00
10/000	CLEMENCIO LARREINALARRAURI	6	305	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		134				14/9/20	11:15
11/000	CLEMENCIO LARREINALARRAURI	6	304	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		64				14/9/20	11:15
12/000	CLEMENCIO LARREINALARRAURI	6	303	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		840				14/9/20	11:15
7/000	CLEMENCIO LARREINALARRAURI	6	307	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		351				14/9/20	11:15
8/000	CLEMENCIO LARREINALARRAURI	6	306	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		299				14/9/20	11:15
13/000	MIGUEL ANGEL BARJOA BISATTE	6	302	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		256				15/9/20	10:00
16/000	PABLO MARRAÑON MARTINEZ DE LAGRAN ANTONIO MARRAÑON MARTINEZ DE LAGRAN M. BLANCA MARRAÑON MARTINEZ DE LAGRAN M. ROSA MARRAÑON MARTINEZ DE LAGRAN ELADIO MARRAÑON SAN VICENTE	6	360	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		108				15/9/20	11:15
17/000	PABLO MARRAÑON MARTINEZ DE LAGRAN M. BLANCA MARRAÑON MARTINEZ DE LAGRAN M. ROSA MARRAÑON MARTINEZ DE LAGRAN ELADIO MARRAÑON SAN VICENTE	6	359	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		372				15/9/20	11:15
18/000	ELADIO MARRAÑON SAN VICENTE	6	358	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		1058				15/9/20	11:15
19/000	ELADIO MARRAÑON SAN VICENTE	7	454	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		1566	1268	Area telefonica 3m / Area telefonica 3m / 641		15/9/20	11:15
21/000	M. NATIVIDAD DOMACA PRESA	7	448	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		399				16/9/20	10:00
14/000	M. CONCEPCION PEREZ FORONDA	7	455	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		2085	1614	Area telefonica 3m / Area telefonica 3m / Area telefonica 3m / 98		16/9/20	10:45
1/000	JOSEFA FORONDA OGUETA	7	282	BERNEDO	BARATZA / HUERTA		340	205	Area telefonica 3m / Area telefonica 3m / 98		16/9/20	12:00
2/000	M. PURIFICACION FORONDA OGUETA	7	88	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		61				16/9/20	12:00
9/000	JOSEFA FORONDA OGUETA	7	456	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		2109	1586	Area telefonica 3m / Area telefonica 3m / 294		16/9/20	12:00
23/000	ENRIQUE PEREZ MARTINEZ	7	451	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		405				17/9/20	10:00
22/000	ALBERTO SAEZ GONZALEZ FERNANDO SAEZ GONZALEZ	7	452	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		631				17/9/20	10:45
15/000	EMILIO LACUESTA GANZARAIN	6	381	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		662				17/9/20	12:00
5/000	EMILIO LACUESTA GANZARAIN	7	457 B	BERNEDO	BARATZA / HUERTA		190	281	Area telefonica 3m / Area telefonica 3m / 272		17/9/20	12:00
6/000	EMILIO LACUESTA GANZARAIN	7	457 A-C	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		457	536	Area telefonica 3m / Area telefonica 3m / 272		17/9/20	12:00
24/000	ACUSTINE GONZALEZ MARTINEZ DE LAGRAN M. TERESA GONZALEZ MARTINEZ DE LAGRAN	7	450	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		734				18/9/20	10:00
25/000	ACUSTINE GONZALEZ MARTINEZ DE LAGRAN M. TERESA GONZALEZ MARTINEZ DE LAGRAN	6	10	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		884				18/9/20	10:00
26/000	ANGEL PEREZ MARTINEZ	7	443	BERNEDO	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		469				18/9/20	12:00
3/000	AYUNTAMIENTO DE BERNEDO	7	141	BERNEDO	MENDIA / MONTE		750,52				18/9/20	12:45